

Egitura atomikoa - T Periodikoa: Ariketak

Ariketa #01

Adierazi, arrazoituz, ondoko esaldiak ondo ala gaizki dauden

- a) ioduro ioiaren erradioa iodoarena baino handiagoa da
- b) karbono dioxido molekula lineala da
- c) karbono tetrakloruro molekula apolarra da

Ariketa #02

Idatzi K (Z=19) eta Rb (Z=37) atomoen konfigurazio elektronikoak eta adierazi zein den emango dituzten ioi probableenak.

Ariketa #03

- a) Idatzi ioi hauen koenfigurazio elektronikoak: Na^+ , Al^{3+} , F^-
- b) Ordenatu erradioen arabera
- c) Adierazi eta arrazoitu ea molekula hauek momentu dipolarra ote duten: hidrogeno sulfuroa, amoniakoa eta karbono dioxidoa.

Egitura atomikoa - T Periodikoa: Ariketak

Ariketa #04

A, B eta C elementuen zenbaki atomikoak, hurrenez hurren, 19, 17 eta 12 dira. Adierazi:

- bakoitzaren konfigurazio elektronikoa
- bakoitzaren taula periodikoko taldea
- A eta B elkartzean emango duten lotura-mota
- B atomoak elkarrekin elkartzean emango duten lotura-mota

Ariketa #05

Zer dute elkarrekin ondoko espezieen egitura elektronikoek?: Ar, Cl⁻, K⁺, Ca²⁺ eta S²⁻

Ordenatu aurreko espezieak tamainaren arabera.

Ariketa #06

Eman dezagun A (Z=12) eta B (Z=17) elementuak ditugula.

Adierazi:

- bakoitzaren konfigurazio elektronikoa
- nork duen ionizazio-energia handiena, arrazoituz
- bien artean elkartzean zer substantzia-mota emango duten eeta formula.